

<u>ELKARTEAREN IZENA</u> ARALAR ALDERDI POLITIKOA		<u>IFZ</u>	
<u>LEHEN DEITURA</u>	<u>BIGARREN DEITURA</u>		<u>IZENA</u>
<u>KALEA</u> SAN PEDROKO PASABIDEA	<u>ZK.</u> 1	<u>SOLAIRUA</u>	<u>TEL.</u>
<u>PK.</u> 01001	<u>UDALERRIA</u> GASTEIZ	<u>HERRIALDEA</u> ARABA	<u>NAN</u>

AZALTZEN DUT:

Gasteizko Udalak Udaltzaingoaren eredu berria eraikitzeko ireki berri duen prozesuari buruzko iritzia halarazi nahi dizue Aralar Alderdi Politikoak.

Prozesu honen lehenengo 2 faseetara ("Informazioa" eta "Ekarpenak biltzea") joan ostean, egindako analisiaren ondorioak zuen eskura jarri nahi ditugu, eta horretarako prozesuak berak proposatutako formatua erabili dugu. Beraz, honekin batera aurkeztutako DIAGNOSTIKOARI BURUZKO BALORAZIOA eta EREDU BERRIARI EKARPENAK erantsi ditugu.

DIAGNOSTIKOARI BURUZKO BALORAZIOA:

Zaila da diagnostikoaz balorazioa egitea, balizko ondorioen berri bakarrik eman zaigunean. Diagnostikoa egiteko erabili den prozeduraz datu bat bera ere ez zaigu ematen, ez eta parte hartu duten pertsona kopuruaz eta haien profilaz, ez eta erabilitako eta lortutako informazioaz. Ondorioak horietan guztietan oinarrituko direla suposatzen dugu.

Eman zaigun balizko diagnostikoaren lehendabiziko paragrafoan azterketaren ondorio bezala adierazten da nolakoa izan behar den udaltzain on bat, eta horrek arreta deitu digu. Diagnostiko edo azterketaren ondorioa daukagun udaltzaingoa nolakoa den deskribatzea da logikoena.

Era berean, nabarmentzen diren eta hobetu beharreko lan-arloak zehazten dira, baina baieztapen horiek oinarritzeko datu objektiborik ez da ematen eta, horrenbestez, diagnostikoa jasotzen duen pertsonak asmo onez jokatu behar du hori horrela dela sinesteko, ondorio horiek zuzenak diren edo ez argudiatzeko informazio nahikorik (ez baita informaziorik eskaintzen) ez daukalako eskura, ez bada bere pertzepzio pertsonala.

Edozein parte-hartze prozesu zintzok informazio gardentasuna eta gaiaren inguruan eskuragarri dagoen informazio ororako sarbidea ezinbesteko baldintza du arrakastatsua izateko. Informazio publikorako sarbide egokia duen ondo informatutako gizartea bakarrik sentituko da motibatua eta gaitua edozein ekimen pertsonal, sozial edo politikoren diseinuan, abian jartzean eta kontrolean parte hartzeko.

Gure ustean, aurrebaldintza hori ez da bete balorazioa eskatzen zaigun diagnostikoaren kasuan, eta hori ohikoa da Gasteizko udal politikagintzan aspaldiko urteetan; gainera, ez dugu borondaterik ikusten hutsune demokratiko hori konpontzeko, abian jarri den "parte-hartze" prozesu honetan agerian geratu den bezala.

EREDUARI EKARPENAK:

Eskuragarri jarri duten dokumentaziotik ondorioztatzen da udal-gobernuak argi daukela zer lortu nahi duen herritarren parte-hartze prozesutik: udaltzaingo eredu parte-hartzailea.

Horretarako, herritarren parte-hartze prozesua jartzen da abian, baina hutsune sakon eta larriak ditu:

- Ez dakigu nola landu den gure esku utzi duten oinarrizko dokumentua. Dena dela, itxura guztien arabera modu aldebakarrekoan eta itxian idatzi da, eta udal gobernuko talde politikoak baino ez du sarbiderik izan horretarako.
- Parte-hartze prozesua zurruna da. Sei fase eta erritmo zein data itxiak ezartzen dira.
- Herritarren parte-hartzea ekarpenak jasotzera mugatzen da. Ekarpene horiek lehenesteko ardura parte hartu duten pertsonak egingo dute, baina udal gobernuak bere kabuz erabakiko du zein ekarpen aintzat hartuko duen eta zein ez, edota noiz eta nola jarriko diren indarrean. Beste behin, lehenetsitako ekarpenak (eta ez erabakiak) edo babes handia dutenak ez dira lotesleak izango udal gobernuarentzat.
- Prozesua jarraitzeko fasea jaso da, eta hori berria da Gasteizen, nahiz eta kontrolerako fasea berezko ezaugarria izan ondo burututako edozein parte-hartze prozesutan. Kasu honetan, jarraipenerako edo kontrolerako fasea erabat murriztua dago, parte-hartze prozesuak ez duelako izaera erabakiorrik edo loteslerik.

Horregatik guztiagatik, eszeptikoak gara ireki den parte-hartze prozesuaren zintzotasunaren aurrean. Gainera, eskuragarri jarri duten dokumentazioak agerian uzten du udal gobernuak erabaki duela den nahi duen udaltzaingo eredu eta erabaki duela herritarrek esku-hartzeko duten tarte murrizta: ekarpenak egin ditzakete, baina informazio nahikorik gabe eta, batez ere, erabakitzeko ahalmenik gabe. Itxura guztien arabera, aurpegia zuzitzeko erabili nahi dute parte-hartze prozesu hau, populismo hutsa berriro erakutsiz. Daukan diseinuagatik, iada diseinatua dagoen ereduarekin bat datozen herritarren ekarpenak bakarrik izango dira aintzat hartuko direnak eta indarrean ipiniko direnak, eta eredu hori indarrean jarriko da herritarren iritzia edozein dela ere.

Era horretara, abian jarri den prozesuaren hutsunez eta arriskuez ohartaraztea eta horren salaketa publikoa dira ereduari egiten dizkiogun ekarpenak. Halaber, horiek konpontzeko exijentzia egiten dugu, berez herritarren artean zilegitasun oso txikia duten (erabat merezia, gainera) erakundeetako kalitate demokratikoa handitzeko. Plangintza txarreko eta gaizki abian jarritako parte-hartze prozesuen ondorioek herritarren motibazio galera ekartzen dute etorkizunean izango diren esperientzia parte-hartzaileen aurrean, eta herri parte-hartzearen ospea galtzea eta herritarrek kudeaketa publikotik aldentzea ere suposatzen dute.

Gasteiz, 2012ko ekainaren 21a